

**ELKARRI MOKOKA:** Mikel Hernandorena eta Pello Azpiroz **ELKARRIZKETA:** Asun Olaetxea  
**ERREPORTAJEA:** Beti Kozkor Kluba **KUXKUXEAN:** Ekaineko zorion agurrak

Ikusi  
hemen  
Mailope



[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

## Iluntasuna argituz



Aitor Irastortza (Azpirotz)  
Bertso berriak  
Mailoperi jarriak



Kriseiluek berez badute zerbait magikoa, baina joan den maiatzaren 13an Azkara-ten eta Lekunberriin piztutakoak bereziki izan ziren magikoak. *Gure esku dagok antolatutako ekimena izan zen.* 2017ko ekainean egingen den herri galdeketa prestatzeari ekingo diote orain.

Iritsi da uda eta askorentzat bertan dira oporrak. Ale honetan margotzeko marrazki hau proposatzen dizuegu. Marrazkia margotu eta mailope@labrit.net helbidera bidaltzen diguzuenen artean Denon artean argialetxeak eskainitako liburuak zozketatuko ditugu.



*Bestalde, hilabete honetan herriz herriko festak ere hasiko direnez, aurten zuen festetako argazkiak jaso nahi ditugu. Bidaliezaguzu zure lagunekin nahiz senideekin ateratako festetako argazkia!*

*Denon artean Argialetxeak eskainitako liburuak.*

**Antsoenea**  
ARIDU LATAKAREN ESNE GORDINEZ  
EGINDAKO GAZTA ONDUA  
Eduze EOMA ELABORADO ARIKIDU  
TF. 948 51 34 68 . antsoeagaztak@gmail.com . Urtegi

**Atabal**  
okindegia  
Era askotako  
ogiak eta gozoak  
Etxez etxe  
banatuko dugu  
Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE**  
harategia

**BERTAKO HARAGIA**  
Txistorra, txorizoa,  
salteixak,  
sukaldaturako platerak.  
Etxera eramateko  
zerbiltua ere eskeintzen  
dizugu.  
Antigua Kalea N°7  
31890 BETELU  
Telf: 948 51 30 88  
maiteharategia@hotmail.com

**04>** Iritzia

**08>** Luze: Leire Aranburu



## 10 > Beti Kozkor

Beti Kozkor Klubak bost eta bederatzi urte arteko haurrentzako futbol eskola propioa sortu du eta abenduan Errealarekin sinatutako akordioari esker formakuntza hobea eskainiko die bere jokalariei.

**13>** Irargarki taula: Beteluko Udalak onartutako kontuak eta aurrekontuak.



## 16 > Asun Olaetxea

Joan den apirilaren 29an Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakari izendatu zuten Asun Olaetxea. Berarekin izan gara lehen hilabete honetako balorazioa egiteko.

**19>** Nor da nor?: Argazki zaharrak gogora ekarriz.

**27>** Kuxkuxean: Ekaineko zorion agurrak.



## 28 > Txomin Otermin Pellejero

Urte erdia Aralarko artzain txabolan ematen du Txomin Otermin Pellejerek. Artzaintza izugarri aldatu da azken urte hauetan eta faltan botatzen du artzain gehiago ibiltzen ziren garai haiek.

**31>** Kontu txikiak

Mailope doan banatzen da honako herrietan:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiuro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

Argitaratzen du: Mailope Kultur Elkarteak.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

**ERREDAKZIOA:** Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo, Alfredo Dufur, Nerea Urbizu eta Andoni Tolosa.

**ARGAZKIAK:** Labrit, Juan Antonio Garaikoetxea, Esther Mikeo, Beti Kozkor, Guillermo Olmo, Maider Agirrebarrena, Asun Olaetxea, Mikel Hernandorena eta Carlos Camara.

**PUBLIZITATEA:** Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

**MAKETAZIOA:** Mikel Azpilikueta.

**TIRADA:** 1.600 ale.

Agurtu nahi zaitugu Garbiñe  
bihotzez modu xumean  
min sakon batek hartu gintuen  
joan zinen egunean  
nahiz kontsuelorik ezin aurkitu  
utzi duzun hutsunean  
betiko biziko zara gure  
bihotzen erdigunean  
bat egiten baitugu zurekin  
zure duintasunean (bis)

## Arrasateko lehengusuak



- 4 -

## Zuri, Garbiñe:

Ama, emaztea, alaba, arreba, emakumea, laguna, musikaria, lankidea, festazalea, beteluar eta euskaldun petoa... Eta bizitza honetan beste hainbat paper hain sutzuki jokatu izan dituzun horri, hitz xume batzuk zuzendu nahi nizkizuke; nahiz eta bihotzak adierazteko agintzen dizkidanak azaltzea ezinezkoa izango zaidan.

Gure artean egoten jarraitzea ezinezkoa egin zaizu, eta ez da izango bizitzari eusten saiatu ez zarelako; ongi aski dakigu zure indarra eta bizi-poza noraino iristen diren. Zure irribarreak, zure baikortasunak, besteekiko laguntza eta animoak, ez zaituzte momentu gogorrenetan ere eskutik askatu; beti gainean eraman dituzu, soinekorik ederrenak izango balira bezala.

Joaten utzi aurretik, "Ikusi arte!" batekin agurtzera hurbildu gara elizara, zuri omenalditxo nimiño bat egiteko asmotan. Eta elizan abiatu duzun azken bidaia hau, zure bizitzan ezinbestekoak izan diren hiru elementuz inguratuta egin duzu: musika, loreak eta maitasuna. Agian merezi duzun musikarik ederrena ezin izan dugu lortu; agian merezi dituzun lore-sorta guztiak ezin izan ditugu eskuratu; baina nekez lortu dezakete lau paretek maitasun gehiago biltzea.

Eta hortxe egon gara denok Garbiñe, geldi, argazki batean bezalaxe; eta pentsatu nahi dut, ez bazaitugu ikusi, beste askotan bezala kameraren atzean zu zaudelako dela, argazkia ateratzen. Kamara horri ordea, flasharen argia agortu zaio eta horregaitik ez duzu irribarrerik sumatu gure aurpegietan; eguzkiak uko egin dio irteteari eta iluntasuna da nagusi gure artean; hor goiko norbait ere damututa dagoela dirudi egindako hutsegitearekin, euri moduan negarrez aritu baita.

Hala ere, badakit gaua iristean, izar distiratsu batek argituko dituela nire oroitzenak eta malkoei oraindik ere eutsi ezinik, barre txiki bat hurbilduko dela nire ezpainetara. Eta horrela izango da hemendik aurrera. Zure izarrek merezi baitu, hondatuta dagoen kamera bezala, gure bihotza konpontzeak.

Mila esker Garbiñe bizitza honetan eskaini dizkidazun momentu pozgarri guztiengatik, zaude ziur altxor moduan gordeko ditudala nire bihotzean. Muxurik goxoena bidaltzen dizut, egunen batean berriz ere elkarrekin algara batzuk egingo ditugunaren itxaropenarekin.

Maitasunez,

Oiana

**asegurogintza**  
aseguru  
aholkulariak  
Zure ondarea  
eta segurtasuna  
babesteko modu  
bakarra behar bezela  
aseguratua egotea da

Telefona: 943652220. [asegurogintza@aseguroak.net](mailto:asegurogintza@aseguroak.net)  
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa



Egin zaituz bazkide!!

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
[info@bidegoxo.com](mailto:info@bidegoxo.com)





## **Ez, ez, ez... Ez da juxtua!!!**

*Ez, ez, ez... Zu hain gaztea eta bizitzan jarriak zenituen ilusioekin. Zure semeekin eta zure bizita konpartitzea erabaki zenuen pertsonarekin. Ez, ez, ez... Ez da justua, hain motza izatea. Zu gogoratzen zaitut, niri animoak ematen, belaunetik operatu berria etxeratu nintzenean eta zu bereziki, zurea pasatzen ari zinelarik, muxu potoloak bidaltzen zenizkidan. Zu, kimioterapia saio haietariko bat hartu berria zinenean, ohean zeundela esaten zenidan, nekatua zeundelako. Zu zinen niri animoak ematen lehena eta kontaktzen zenidan, nola zeneukan oineko azkazala, beltz-beltza eta izarrak ikusten zenituela norbaitek hor zanpatzen edo ukitzen zizunean. Zu zinen animoak ematen lehena. Beti bezala ikusiko zaitut, Araitz-Betelun antolatzen diren ekintza guztietan inplikaturik eta gogotsu parte hartzen.*

*Ibar zoragarri honetara iritsi nintzenetik gogoratzen zaitut txistua eta danbolina hartuta. Zuk jaso zenuen zure amaren testigua eta aldi berean, zure amak zure aitona-rengandik jaso zuen. Horrela gogoratzen zaituztet eta horrela disfrutatu dugu guztiok zuekin. Horrekin geratzen naiz; beti-beti, gertu, inguruan sentituko zaitut. Ziur nago ortzadarraren koloreekin, zubi luze bat egingo dugula, lortzen ditugun instrumentuekin, ozen joko dugu, zuk entzuteko moduan eta gure bandari begiratuko diozu. Bitartean, zauden unibertso horretatik, zure energia apur bat bidali, zure galera apur bat eramangarriagoa izan dadin.*

*Hurrengo jaietan ikusiko gara Garbiñe. Beti izango zara gure artean...*

*Muxu potolo-potoloak.*

*Txaro.*

---

*Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi  
mailope@labrit.net-era  
hilaren 20a baino lehen.*

# Bertso berriak

## Mailoperi jarriak

Aitor Irastortza (Azpirotz)



*Ekainaren erdian  
Larraungo Eguna  
umiltasunez harro  
ospatzen duguna  
bertara animatzen  
bazara laguna  
jakingo duzu zer den  
zoriontasuna!*

*Herri txiki guztiek  
dute izaera  
eta irudikatu  
guztiak batera!  
Bizi-poza ekarriz  
horien artera  
hegan jarraituko du  
bailarak aurrera!*

Ioseba Goikoetxearentzako puntua:

Festa faltarik ezta  
gure herrietan

Oinak:

udara, bailara, gara, bertara.



Doinua: Larraungo zortzikoa.

- 6 -



### GARBIKETA ETA LISATZE ZERBITZUA

Orain dela hilabete ireki zuten Confort enpresa Lekunberrin. Hasieran lisatze zerbitzua soilik eskaintzen zuten, baina orain arropa eta edozein ehun mota garbitzeko zerbitzua ere eskaintzen dute. Oheko manta eta izarak 7.50 eurogatik garbitzen dituzte eta lisatzeko zerbitzua 0.99 zentimoren truke.



### BARAIBARKO AZOKA


Ekainaren 4an eta 5ean bigarren eskuko azoka izanen da Baraibarko frontoian. Aurten gauza txikien azoka egingen dute, jostailuak, liburuak eta pitxiak izanen dira salgai. Gainera eskualdeko talogileak ere parte hartuko dute.



### INTZAKO 3. KALEKO ANTZERKI FESTIBALA

Ekainaren 17tik 19ra bitarte Antzerki eta kultur jarduera ezberdinak izanen dira Intzan. Ostiralean iluntzeko 20:00etan Sorabileko "Berriz ere telonerak" antzerki taldearen emanaldia-ekin emanen diote hasiera eta igande eguerdian egingen den herri bazkariarekin itxiko dute aurtengo festibala. Egitarau osoa Agendan (31. orr.).

## Debekuak bata bestearen atzetik



Mikel Hernandez

Iepa Pello!!!! Zer moduz??? Imaginatzen dut lan eta azterketekin “a tope” ibiliko zarela, ni bezala, baina benetan merezi du aste hauetan pixka bat sufritzeak gero uda lasaia izateko.

Gaurkoan azken aldiak erakunde ezberdinek bai ikurrinari eta baita Kataluniako esteladari ere egindako eraso nahiz debekuez mintzatuko naiz. Izan ere, ez dakit kasualitatea ote den, baina azken aldiak bi ikur hauek zapaltzeko asmoa nabaria da. Hiru adibide ipiniko ditut.

Lehenik eta behin, denok gogoan dugu azken aste honetan *Eurovisión* izan dugula telebistan. Europako nazioen arteko

### “Ikurriña Estatu Islamikoaren banderaren pare jarri zuen”

abeslarien lehiaketa hau hasi aurretik, lehiaketa honen antolakuntzak ikurrina Estatu Islamikoaren banderaren pare jarri zuen, nazioartean debekatuta dauden nazioen antzera. Nire galdera da: Erotu al gara? Nola da posible guztiz legala den bandera hau gaur egun sarraskiak mundu osotik egiten ari den talde terroristaren pare jartzea? Izugarria benetan.

Bigarrenik, lehengo asteburuan *Eurovisión* programa has-tear zegoela, bi gazte ikuskizunerara sartzera zihozazen, bakoitza ikurrin banarekin, segurtasunekoek sarrera galarazi zieten. Ondoren, berriz ere, *Eurovisión*eko antolakuntzak barkamena eskatu behar izan zuen.

Hirugarrenik eta azkenik, azken aste honetan futboleko Errege Koparako finalean Kataluniako esteladak sartzea debekatu dutela jakinarazi du Madrilgo Estatuko OrdezkaritzaK. Ni lehenengoa naiz politika eta futbola nahastu behar ez direla esaten, baina ez zait bidezkoa iruditzen Espainiako banderak sartzeko uztea, eta aldiz, Kataluniako esteladak sartzea debekatzea, Gobernuaren ustez Konstituzioaren aurka doazelako.

Berez demokrazia batean bizi bagara, adierazpen askatasuna egon behar dela esaten da, baina batzuk tematurik daude, behin eta berriz gutxiengo batzuen eskubideak zapaltzeko asmoarekin. Inposaketaren bidez, bada, ez goaz inora.



Pello Azpirotz

Iepa Mikel!!! Ba hementxe nabil lanez gainezka, gehienok bezala. Azken txanpan sarturik gaude uda noiz iritsiko zain. Dena ongi atera ezker, udan gure gustuko makina bat gauza egiteko aukera izango dugu.

Bizi garen “demokrazia” honetan zuk aipatzen duzun bezala, adierazpen askatasuna kolokan dagoela iruditzen zait. Eskubide honen urraketak ikustea ez da batere zaila, horien adibide ugari aipatu dizkiguzu iadanik. Berezko izan beharko lukeen eskubide hau behin da berriz defendatzen aritu behar al gara? Horrelako gauzek erakusten dute estatu baten demokrazia maila.

### “Ea gobernu hau gai den arazo honi irtenbide egokia emateko”

Aipatu dituzu hiru adibide esanguratsu, baina niri burura etortzen zaidan lehena ikurrinari loturik dagoen azken kasu nabarmena da: Sanferminetan gertaturikoa. Urteak daramatzagu kontu honekin Nafarroan eta oraindik ere arazoak ditugu ikurrinaren normalizazioa lortzeko.

40 urte baino gehiago dira Franco hil zela eta gaur da eguna ikurrinak debekatua izaten jarraitzen duela Nafarroako instituzio publiko guztietan. Nahiz eta Franco hil ondorengo

lehen urteetan legeztatua egon, adibidez Iruñeko udaletxeko balkoian inongo arazorik gabe zintzilikaturik ikustea posible zen. Gai honetan behintzat aurrera joan beharrean atzeraka goazela uste dut. Eta non geratzen da nafar askoren sentimendu identitarioa ordezkatzen duen ikurra?

Zorionez azkeneko hauteskundeei esker Nafarroan aldaketa egon da bai gobernuan eta bai udaletxe askotan. Ea gobernu berri hau gai den arazo honi irtenbide egokia emateko, orain arte egon diren “demokratek” asmatutako legedi inposatzaile hauek bertan behera uzteko. Espero dut epe laburrean nire udaletxeko balkoian ikurrina ikusteko aukera izatea, berriz pozgarria izango litzateke.

Ni bezala buru-belarri lanean edo ikasten zabilzaten guztioi besarkada bat eta eutsi goiari!!!!



Leire Aranburu

LUZE

# Ekainak hogeita sei

Ekainak hogeita sei, urteko ehun eta hirurogeita hamazazpigarren eguna, bisurteetan bat gehiago, Nazioarteko Drogen Aurkako eta Torturaren Biktimen Aldeko Eguna, San Pelaio Eguna, uda hasi berria ikasle askorentzat, errekupeazioekin zabilzatenontzat nahiz selektibitatea prestatzen ari zarenontzat pazientzia eta animoak, San Juan jaietako ajea pasatzeko eguna beste batzuentzat, langile asko oporrak hasteko puntuan, besteak eguzkia hartzen, lantegian asko eta asko (lanean jarraituko duen norbait beharrezkoa delako), udako lan berria aurkitu eta pozez zorutzen beste pare bat edo hiru... Baina, denentzat ekainak hogeita sei, urte honetako egun bat gehiago edo gutxiago, perspektibaren arabera.

Aurtengo ekainaren hogeita seia, ordea, egun seinatua izango da guztiontzat, hemendik urte batzuetara, historia liburuetan agertuko den eguna, telebista, aldizkari, egunkari, nahiz hainbat web orrialde eta sare sozial beteiko dituen eguna. Baina, aldi berean, ez da egun berezia, egun hau lehen ere, bizi izan genuen, eta ez duela asko, hain zuzen ere pasa den urteko abenduaren hogeian. Beraz zergatik errepikatu behar dugu berriro ere egun berbera eta zeregin berbera?

Ba, oso simplea, gizakiaren botere nahiagatik, bai horrela da, agian horrela esatea nahiko bortitza da, baina ez dira gai izan, elkarrizketa bat bide dela, erabaki bat hartu eta elkarlanean lan eginez gobernu berri bat eraikitzeko. Zergatik? Bakoitzak bere ikuspuntua besterik ez duelako ikusten, berea defendatzen du, bere interes propioen alde eginez, gehiengoaren ongizatearen ginetik. Eta orain berriz ere guri toka-tzen zaigu gure botoa ematea, azken batean beraiek ez dute lanik hartzen ez dirurik galtzen eta boto pare bat gehiago lortzen badituzte, prime-



“Arazoa atzeratu besterik ez da egingo”

ran. Diotenez, berriro ere herritarron erabakia entzun nahi omen dute, gutxitan kontuan hartzen dutena. Nik nahiko garbi dut, nire ikuspuntutik, hau alferraren leloaren antzekoa da, baina kasu honetan ez da alferkeriagatik uzten arazoa gerorako, kasu honetan erreputazio kontua da. Gauzak ezin izan dituzte gehiago luzatu, eta hitzarmenerako eta elkarlanerako arazoak dituztela aitortu baino lehen, berriro ere hauteskundeak, horrela arazo eta krisi politikoa atzeratu, arazoaren erantzukizuna desegin eta beraien inkompetentzia agerian ez uzteko.

Baina, badakigun moduan arazoa atzeratu besterik ez da egingo, nahiz eta oraingoan emaitza ezberdinak atara eta gobernu osatzea lortu, etorkizun batean berriro ere azaleratuko da arazoa, agian beste alderdi batzuekin, agian beste ideien inguruan baina handik edo hemendik agertuko dira arazoak, eta berriro ere agerian geratuko dira herrialde “demokratiko” honetan betidanik izan diren botere nahiak sortutako desorekak. Erokeria bat delako emaitza ezberdinen zain egotea, emaitza horiek lortzeko prozesuan inongo aldaketarik ez badago.





# Izan beharraren zama

Kaixo irakurle! Udaberri alde hau garai mugitua izaten da niretzako, kurtsoan zeharreko ekintzak bukatzera doaz eta lanak, ekintza bereziak, udaberriko jaialditxoak, udararen prestaketa... Egitekoz lepo eta nerontzat tarte handirik gabe egoten naiz garai honetan. Zorionez, nire urteko martxa eza gutzen noa azken urteetan eta ez nau sorpresaz hartzen. Ekintza ederrak dira bestalde, baina gehiegi askotan. Estres egoera hauetan, nire buruari galdetzen diot: Zergatik hainbeste ekintza?

Azken urteetan nire burua ezagutzeari garrantzia eman diot, horretarako ari naiz formakuntza batzuk egiten. Bertan, beste gauza askoren artean, nire emozioak entzuten eta ulertzen ari naiz, horrek nire osasunerako duen garrantzia ikusita. Eta ikusten dut askotan pentsamenduek eta emozioek ez daromatela bide bera, hau da, buruak ongi noala esaten didala baina emozioek beste gauza bat, edo kontrakoa edo... Beraz, hor fintzen saiatzen ari naiz.

Egiten ditudan ekintza guztien atzean zeozer "bultzatzailea" badagoela ohartu naiz: Norbait izatea. Oso garrantzitsutzat jotzen dudala norbait izatea eta horretarako gauza asko egin behar ditudala. Gainera, aukera asko ditudala eta orduan denak aprobetxatu behar ditudala eta... Nola ez naiz ba izango norbait berezia edo egingo zerbait berezia edo... Nola maiteko naute inor ez banaiz? Zer esango dute nire gurasoek? Nire auzokoe? Aldiz, lorpenekin banoa, denak maiteko naute... Ohartu naiz uste baino indar gehiago dutela beldur hauek nire barruan.

Eta norbait izatearen balioak, jarrita daude. Ekonomikoari dagokionez, norbait izatea etxea izatea da, kotxea, hor zehar ibiltzeko dirua izatea, tabernarako, arroparako... Balio korporalari dagokionez, argal egotea, guapo, gi-



**“Gure erabakiek gureak behar dute izan”**

hartsu, kirolean ona izatea... Eta balio "izatekoari" dagokionez, arrakastaduna, azkarra... Gainera, ematen du denak daudela denen esku, horretarako

eguneko 24 orduak eman behar badiugu ere! Beti egin dezakegu zerbait gehiago, ez badugu egiten, alferrak izango gara edo...

Eta kezka nagusia zera da, norbait izate horretan, besteek ongi ikus gaitzaten, gu ez garena ere izan behar dugula askotan, besteei gustu egiteko, modu batera izan behar dugulako, adibidez ez gara kexatu behar, txintxoak izan behar gara, formalak... Horretaz gain, lan txukun bat izan behar dugu eta gero gerokoak, bikotekidea izan, etxea... Izatea zama bihurtzen da askotan. Zenbat gauza aukeratzen ditugu guregatik eta zenbat ingurukoak pozik uztegatik? Ondokoekin ongi moldatu behar ez garenik ez diot, baina gure erabakiek gureak izan behar dutela bai, besteei gehiago edo gutxiago gustatu, ondorio nagusiak guk biziko ditugulako.

Aldiz, garena garenean, garen bezala, pozago bizi garela iruditzen zait, gure buruarekin bakean eta ingurukoekin ere, ez garelako haietaz baldintzatuak sentitzen. Baina, baldintza hauek txikitatik heldu zaizkigu, umetatik, gurasoengandik, inguruarengandik... Niretzat aurreneko lana karga hauek badiudala ohartzea izaten ari da, intentzio txarrik gabe jasoak noski, baina niretzat ez direnak. Bigarren lana berri, karga horiek kendu eta nire kabuz aukeratzea da.

Jaiotzeagatik, bagara nor. Garen hori ongi dagoela uste dut, bakoitzak dugun berezitasuna garatu behar dugu, normaltasunez. Ez dugu bereziak izateko ahalegin berezirik egin behar. Ez gara besteak baino gehiago ezta gutxiago ere. Hau ulertzen noan heinean, lasaiago nago. Hala ere, ekintza batzuk uztea ere ez litzaidake gaizki etorriko, naizen horri espazio gehixeago uzteko, naizena izatea zama ez bihurtzeko. Hala bedi!



## *“Futbol eskola Beti Kozkorreko gainontzeko taldeak elikatzeko oinarritzkoa da”*

*Futbol eskola propioarekin eta Errealarekin sinatutako hitzarmenari esker, Beti Kozkor Klubak etorkizun oparoa izan dezakeela uste dute kideek.*

183 fitxa ditu egun Beti Kozkor Klubak. 15 entrenatzaile eta Zuzendaritza Batzordeko hiru kideen lanarekin dijoa aurrera. Azkeneko bospasei urte hauetan Osasuna Fundazioak, Lekunberriko Udalarekin zuen hitzarmenaren bitartez, eskaintzen zuen bost eta bederatzi urte arteko neska-mutikoen prestakuntza. Aurten Klubak txikienean futbol eskola bere gain hartzea erabaki du eta ikasturte hasieratik bost entrenatzaileen laguntzarekin kudeatu dute futbol eskola. Iñaki Ganuza, Zuzendaritza Ba-

tzordeko kidea: “Bost eta bederatzi urte arteko haurrak elkartzen dira eskolan. Hamar urtetik aurrera, alebinen kategorian sartzearekin batera, federatu eta lehiatzen hasten dira. Horrela pixkanaka kategoriaz kategoria igotzen joaten dira, alebinetatik infantiletara, handik kadeetetara...”.

Alvaro Etxarri klubeko egungo kirol koordinatzailea da. Alvaro: “Nire lana talde bakoitzari entrenatzaileak jartzea da, entrenamenduen ordutegiak bete- razi, urte osoko plangintza prestatu, webgunearen eta sare sozialen kudeaketa... Horrez gain arlo ekonomikoaz ere ni neu arduratzen naiz, diru-sarrerak, gastuak, soldatak, arropak...”.

Futbol Eskola propioa sortzea izan da Beti Kozkor Klubak eman duen pauso

*“Urtero zortzi edo bederatzi lagunek maila batetik bestera egingo dute salto”*

berrietako bat. Iñaki: “Guretzat apustu garrantzitsua izan da, klubeko gainontzeko taldeak elikatzeko ezinbestekoa da oinarrian dauden horiei behar bezalako prestakuntza eskaintzea”.

Eskola sortzeko beharra ikusten zuten azken urteotan, izan ere kategorien arteko mailaz mailako jarraipen eza arazo bihurtzen zen. Alvaro: “Baziren urteak jokalaria faltarik ez genuenak eta beste batzuetan aldiz bai eta urte batzuetan ez zen izaten hurrengo kategoriak betetzeko jende aski. Eskolari esker, jarraikotasun hori ziurtatzen dugu eta horrela urtero zazpi edo zortzi lagunek maila batetik bestera egingo dute salto”.

Modu horretan errazagoa izanen da ere jokalarien garapena, modu progresiboan joango direlako ikasten eta maila handitzea ere ekarriko duela uste dute. Eta hori izan da hain zuzen ere Osasuna Fundazioak eskaintzen zuen eskolarekin egungoak duen alderik handiena. Iñaki: “Osasuna Fundazioak futboleko aritzen irakasteaz gain balore etikoak ere erakusten zizkieten eta oso ongi zegoela uste dugu, baina disziplina handiagoko eskaini nahi dugu orain. Eskola indartuz gero jarraikotasuna bermatzera jotzen dugu. Gainera ez da bakarrik gainontzeko taldeak elikatzeko. Horietariko batzuk jokatzeko jarraituko dute eta beste batzuek, baliteke etorkizunean klubeko beste arlotan aritzea, zuzendaritza batzordean, entrenatzaile gisa...”.

Alde ekonomikoari erreparatu gero ere onurak ekarriko ditu aldaketak klubarentzat. Izan ere, orain arte 200 eurotik gora ordaintzen zuten ikasturtea Osasuna Futbol eskolako ikasleek eta diru hori osotasunean Osasuna Fundaziora joaten zen. Orain aldiz, futbol eskolako ikasleei federatuei bezala kobratuko zaie, 140 euro eta gainera irabazi horiek klubean bertan geldituko dira.

Orgi Soroa, Iker Chasco, Unai Uraga, Aitor Merino eta Oscar Galindo futbol eskolako entrenatzaileak dira eta azken hori zuzendaria ere bada. Beraiekin izan gara lehen ikasturte honetako balorazioa egiteko:

**Nola antolatzen zarete eskola aurrera eramateko?**

**Iker:** Ni eta Orgik bost eta sei urte arteko umeak entrenatzen ditugu.

**Aitor:** Eta ni eta Oskar zazpi eta zortzi urte artekoekin aritzen gara.

**Oskar:** Ni horrez gain eguneroko entrenamenduak koordinatzeaz arduratzen naiz eta atezaintzako entrenamendu bereziak ere egiten ditut.

**Irailen hasi zineten... Zer moduz joan da ikasturtea?**

**Oskar:** Denboraldi polita izan dela uste dut eta ikasi dutela. Ez zeuden ohituta entrenamendu metodo horren espezi-fikoetara, baina nik uste dut aurrerape-nak nabariak izan direla. Dutzara sartzen direnean ere saiatzen gara euren kabuz moldatzen ikasi dezaten eta hemen ditzuten instalakuntzak balora ditzaten saiatzen gara. Beste leku askotan asko kostatzen baita halako azpiegiturak izatea eta jende askoren artean partekatu behar izaten dute. Horretaz jabetu daitezen saiatzen gara.

**Astean zenbat egunetan entrenatzen dute futbol eskolako neska-mutikoe?**

**Oskar:** Astean bitan, asteazken eta ostiraletan.



**Txikien kasuan, bost eta sei urte artekoekin zer moduz moldatu zarete?**

**Orgi:** Ongi. Oso txikiak dira oraindik eta gauzak errepikatzen ibili behar izaten dugu oraindik ez direlako ariketak memorizatzen gai.

**Oskar:** Txikienekin psikomotrizitatea da gehien bat lantzen dena, euren gorputza ezagutzen joan daitezen. Baloia jolas moduan erabiltzen da. Horren txikiak direnean ez dira gai kontzeptuak bereganatzeko etajokoen eta ariketen bitartez gorputzeko atalak lantzen ditugu.

**Iker:** 20-22 haur ditugu baina 12 inguru etortze dira. Eguraldi onarekin gehiago animatzen dira...

**Oskar:** Baina asko zaintzen ditugu. Euria egiten duenean barruan entrenatzen dute.

**Aitor:** Pixkanaka disziplina hartzea da helburua.

**Eta zazpi eta bederatzi urtekoekin zer moduz?**

**Aitor:** Ongi. Osasuna Fundazioko eskolan entrenatzen zuten eta gustora aritzen ziren baina batez ere jolastu egiten zuten eta aurten futboleko nola aritu irakasten saiatu gara, teknikari erreparatzen has daitezen. Hasieran kosta egin zitzaion pixka bat, baino oso ongi hartu dute orokorrean eta gozatu egiten dute ikasten ari direla ikusten dutenean.

**Nolakoak izaten dira entrenamenduak?**

**Oskar:** Zati ezberdinetan zatitutako zirkuitu bat prestatzen dugu eta zati bakoitzean gauza bat lantzen dugu, teknika, fisikoa... Horrela txandaka aritzen dira eta gure lana zuzentzea da. Haurrei beraiei esaten diedan bezala hau eskola bat da, ez da jolastera etortzeko, ikastera etortzeko baizik. Eta uste dut hobe dela horrela, nahi dutena egitera etorri gero ez lukete ikasiko eta denok gaizki egongo ginatke. Gainera eskertzen dute disziplina hori.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
bacalaoselkano@jet.es  
www.bacalaoselkano.com.

**Orgi:** Entrenamendu guztiak 15 minutuko partidu txiki batekin amaitzen ditugu. Jokatzea gustatze zaionak esker-tu egiten ditu partiduak.

**Eta behin hamar urterekin txapelketetan parte hartzen hasten direnean zer moduz moldatzen dira?**

**Oskar:** Norberak eta klubak berak dituen helburuen arabera. Guretzat emaitza ez da dena. Jokatzen ikasi behar dute eta denen artean jokatu. Ez du balio edonola irabazteak.



## “Errealarekin dugun hitzarmenak gure jokalarien formakuntzan lagunduko digu”

**Errealarekin elkarlanerako hitzarmen bat sinatu zuen Beti Kozkor Klubak joan den abenduan.**

**Bi urtez Errealarekin elkarlanean ibili ondoren joan den 2015. urteko abenduaren 21ean sinatu zuten hitzarmena Beti Kozkorreko Joxe Mari Aierdi lehendakariak eta Jokin Apeirribay, Erealeko lehendakariak.**

**Errealarekin elkarlarenako hitzarmenaren ideia zuengandik sortu zen. Zergatik?**

**Alvaro:** Halako talde garrantzitsu baten babesa oso onuragarria da gurea bezalako klub batentzat. Alde batetik ezagutzera emateko balio digu, eta beraiekin

elkarlanean egoteak inguruan futboleko erreferentziako kluba bilakatzen gaitu. Bestetik ekarpen ekonomiko bat ere bada guretzat. Baina batez ere eta garrantzitsuen hemendik Zubietara doazen gazteen teknifikazioa da. Eta gure jokalariek lesioak dituztenean euren espezializatutako medikuen iritzia eskaintzen digute.

**Hitzarmena abenduan sinatu arren, aurretik hasiak zineten elkarlanean...**

**Iñaki:** Bai. Errealeko administrazio kontseiluko kideetako batzuekin ditugun harreman pertsonalei esker iritsi ginen negoziatzen hastera, baina euren protokoloak klub batekin elkarlanerako

hitzarmen bat sinatzeko aurretik beharrezko bi urteak itxaron genituen.

**Nola eragingo du hitzarmen horrek eskolan?**

**Iñaki:** Batez ere formakuntza eskainiko digute.

**Alvaro:** Errealak ekonomikoki babesten gaitu elkarlanean gabiltzan klub bezala. Gero ikuste badute hemengo jokalariren bat nabarmentzen ari dela Zubietara eraman dezakete bertan entrenatu dezan eta bere garapenaren jarraipena egingen dute. Orgi Soroa adibidez Zubietan ibili da entrenatzen.

**Iñaki:** Eta futbol eskolako hurrekin ere torneo txikiak egin ditugu aurten Zubietan. Hori oso motibagarria da txikientzat.

## Iñaki Ganuza Nafarroako Futbol Federazioko zuzendaritza batzordeko kide

Aurten Nafarroako Futbol Federazioko lehendakartzarako hauteskundeak izan dira. Federazio hori hainbat gauzatzat arduratzen da txapelketak antolatu, federatutako jokalarien fitxak, osasun aseguruak etab. Bi hautagai aurkeztu ziren, Rafael del Amo eta Luis Virtoren taldeak. Bi hautagaizak aztertu ondoren Beti Kozkorreko kideek Rafael del Almoren alde egin zuten proposatzen zute programa partehartzaileagatik batez ere.

**Iñaki:** “Beraien alde egiteko erabakia hartu genuenean euren programa partehar-tzailearekin bat eginez zuzendaritza batzordean sartzeko proposamena egin genien. Azkenean Rafaelek berak nire izena jarri zuen ia sorpresaz eta arlo ekonomikoan lan egiteko aurkeztu ninduen. Federazioko zuzendaritza batzordeko kide izatea garrantzitsua da guretzat lehen eskuko informazioa izango baitu Beti Kozkorrek”.

**Lagunasesoría S.L.**

Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
lagunasesoria@terra.es

**SAN MIGUEL**  
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu

**German Lasarte**

**ARBEONDO**  
HARATEGIA

Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

**OKM**  
ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

## BETELUK 2015-EKO KONTUAK ETA 2016-KO AURREKONTUAK ONARTU DITU

Apirilean eta maiatzean ospatutako batzarretan joan den urteko kontuak eta aurtengo aurrekontuak izan dituzte eztabaidagai Beteluko Udalean.

### 2015eko kontuak.

458.000 € inguru gastatu dira guztira joan den urtean.

Horietatik 70.000 € inbertsioetarako erabili dira. Egin diren hobekuntzak hauek izan dira: Amma Betelu ondoko espazioa txukundu eta erabilera publikorako prestatzen 10.000 € erabili dira, La Caixa Fundazioak emandako diru-laguntzaz baliatuz. Ikastetxean, Nafarroako Gobernuako laguntzarekin, teilatuko aleroia egin eta goiko solairuko leihoak handitzen 46.000 € erabili dira eta Aiztitxo eta Irulegiko herri-lurretan berriz, 14.000 € inbertitu dira sasiak garbitzen. Azken inbertsio honetarako ere Nafarroako Gobernuako diru-laguntza izan du Udalak.

Gainerakoan, zatirik handiena eskaintzen diren zerbitzuetarako erabiltzen da: Haur-eskola, eskola, gizarte zerbitzuak, euskara, kirola, musika, herriko festak, argindarra... Guztira 230.000 €.

Zorraren amortizazio eta interesetan 32.000 €.

Pertsonalean 50.000 €.

Ohiko transferentzietan 75.000€.

Urteko emaitza ekonomikoa berriz, honako hau izan da: 17.000 euroko aurrezpen garbia, urte bukaeran 5.000 euroko soberakinak. Zorraren zenbatekoa urte bukaeran, 340.00 eurokoa izan da.

Bukatzeko esan, gastu araua ez dela bete, gehienbat, egindako inbertsioengatik.

### 2.016ko aurrekontuak.

Oсотara, 437.00 €-ko aurrekontuak onartu ditu Udalak.

Partida gehienetan, joan den urteko kontuen jarraitzailea da aurrekontua. Salbuespena, jakina, inber-tzioetan dago. Momentuz, bakarrik 40.000 €-ko aurreikuspena dago Hirigintza Planarekin aurrera egiteko.

Udalak, hala ere, badauka inbertsio gehiago egiteko asmoa, beti ere, Nafarroako Gobernuak Azpiegitura Planarekin aurrera egiteko asmoarekin jarraitzen badu. Hau horrela bada, hiru obra garrantzitsu egingo dira: batetik, Antigua kalean, Balarrenea eta Berganea arteko kalea eraberritzeko obrak. Bestetik, Urbiltegirako bide berriaren eraikuntza. Eta hirugarrenik, hilerrian egingo diren hobekuntzak.



**SASTRAKA**  
auto 4x4

**Ibilgailuen Mekanika Orokorra**  
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

**Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere**  
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9  
31870 Lekunberri

948.60.48.06 Iñigo  
www.sastraka4x4.com

M. Angeles  
Urrizalki

iragarkiak,  
berriak,  
eskelak...

Diario Vasco eta  
Diario de Navarrako  
Korrespontsala

948513056  
699179437



**aitzberri**

edertasun  
zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
948 513 083  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com

## “Bide eman euskarari”

Herriz herri argazkiak atera dituzte datorren ekainaren 4ean Iruñean egingen den “Bide eman euskarari” manifestazioko deialdiarekin bat eginez. Euskaraz bizitzeko aldarrikatuko dute arratsaldeko 17:00etan Iruñeko Golem Zinema paretik abiatuko den manifestaldian.



## Geroz eta postu gehiago bigarren eskuko azokan

Hainbat kultur jarduera egin ziren maiatzean zehar Lekunberrin eta Larraunen Maiatza Kulturalaren egitarauaren baitan. Besteak beste, Xabier Mendigurenekin bildu ziren bost herritar bere bi lanen hausnarketa literarioa egiteko, Beltzean mintzo dokumentala eskaini zuten Lekunberrin eta Amama filma Aldatzen eta azken urte hauetan ohitura bihurtu den moduan bigarren eskuko merkatua izan zen hileko azken asteburuan Lekunberriko frontoian. Aurten 14 postu jarri zituzten eta antolatzaileak pozik daude gerturatu zen jendearekin. Abenduan berriz ere egiteko asmoa dute.

## UEMA-k Udalerri Euskaldunen Eguna ospatu du Leitzan

Ekainaren 28an Leitzan ospatu zuten Udalerri Euskaldunen Eguna. Gurean Araizko eta Larraungo Udala dira UEMA-ko kide eta bertan izan ziren zenbait udal ordezkari. Aurten 25 urte bete ditu Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eta sartu berri diren Dima, Legorreta eta Ziortza-Bolibarrekin, egun 76 kide ditu. Orain arteko ibilbidean egindako lana goraiatu zuen Josu Labaka lehendakariak.



  
**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
 ZURGINTZA OROKORRA  
 INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
 Telefonoa eta Faxe: 948507343  
 carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

**OGI-BERRI ALTZA**  
 Aralar kalea, 41  
 Lekunberri  
  
**OGI BERRI**  
 OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA  
 TABERNA  
 ARALAR, 15  
 948 60 47 24**

**TAXI  
 SOROA  
 609 168 217  
 Bederatzi plaza**

# “Azken Muga proiektuak Aralar mendilerroaren bi aldeetako herritarrak eta artistak elkartu nahi ditu”



Jakin mina piztu zuen joan den hilean Azkarateko plazan jarritako egurrezko aulki erraldoiak. Orain Beteluko plazan dago. *Azken Muga* proiektuaren harira Guillermo Olmo antolatzaile eta artistaren lana da.

Ekainetik irailaren amaiera bitarte erakusketa eta kultur jarduera ezberdinak izanen dira. Disziplina ezberdinetako artistek parte hartuko dute proiektu kolektibo honetan. Tartean eskualdekoa dugun Txitxi Orbegozok. Natura, artea, bertsoa eta musika uztartuko dituzte besteak beste, Mailoen azpiko herrietan egingo diren ekintzen bidez.

Aralar mendilerroak marrazten duen Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko muga horren inguruan dauden herrietako biztanleen parte hartzea ere bilatzen du proiektuak.

Egitaraua oraindik ixteke badago ere, dagoeneko aurreratu digute herrien arteko herri-kirol saio bat izanen dela, historia-ri buruzko hitzaldiak, bertso-saioak, kontzertuak...

**Guillermo:** “Ekintza gehienak Zaraten eginen dira, Bedaio eta Azkarate arteko muga. Ekainaren 2an arratsaldeko 19:00etan aurkezpena eginen dugu Betelun eta ekainaren 25ean Zaraten bertan eginen dugu estreinaldia. Aulki erraldoi hori herriz herri eramango dugu, Azkaraten egon da, orain Betelun eta gero Amezketan, Tolosa, Alegi eta Altzora ere mugituko dugu. Aulkia bileretan elkartu ohi garenean izan ohi den beharrezko elementua izaten da eta hori da bere esanahia proiektuarena bezala, mugako bi aldeak elkartzeko elementua”.



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-  
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA



**urrutia**  
enea

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia

**ARRIBE**

**ADIII! TLF BERRIA:**  
948 51 30 32



panaderia okindegia  
**GALBURU eco**

*Egurrezko labore ogi ekologikoa*

Aldezaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42

## “Erakunde publikoen barruko kontrola indartu behar da”

- 16 -



*Asun Olaetxea beteluarra joan den apirilaren 29an izendatu zuten Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakari*

### **Enpresa Zientzietan lizentziatua zara Asun...**

Bai. Nik Beteluko eskolan ikasi nun eta geo Iruñean BUP eta COU egin ondoren, Enpresa Zientzien diplomatura egin nun lehenik eta beste bi urteko lizentziatura geo.

### **Zure lehendabiziko lana zein izan zen?**

Nafarroako Gobernuako Tokiko Administrazio Departamentuan hasi nintzen udaletxez udaletxe aholkulari ekonomiko gisa. Hamahiru tekniko osatutako talde bat ginen eta bakoitzak bere lan eremua zun. Orduan udaletan idazkari zuzenbide ikasketak izaten zituzten eta beraiek bakarrik egiten zuten lan, ez zen kontularirik izaten, horregatik arlo ekonomikoan hutsune handiak izaten zien. 1988an hasi nintzen lanean eta han hamar bat urte eman nittun.

### **Eta ondoren Nafarroako Kontuen Ganberan hasi zinen...**

Bai. Oposizioak egin eta teknikari postua eskuratu nun Comptos Ganberan. Zazpi urtez



## “9.000 biztanletik gorako udalak urtero fiskalizatzen ditugu”

teknikari lanetan aritu eta geo auditore izateko oposizioak gairatu nituen. Eta azken urteotan horretan aritu naiz.

### **Nola jaso zenuen lehendakartzaren albistea?**

Sorpresa handiarekin. Parlamentuan, orain arte ganberako lehendakaria zen Helio Robledarekin agerraldi batean nengoela Adolfo Araiz hurbildu zitzaidan eta esan zidan ea lehendakaria izan nahi nuen. Nere izena hautagai izateko proposatu behar zela Parlamentuko lau alderdiei. Aldez aurretik nire oniritzia nahi zuen. Harrituta gelditu nintzen. Lan aldetik erronka profesional oso polita zela esan nion, baina komunikabideetan egoteak eta horrek guztiak... Hori ikasi egiten dela esan zidan berak eta azkenean baietza eman nion.

### **Eta pozik hartutako erabakiarekin?**

Bai, pozik. Badauke beste alde bat nik ezagutzen ez nuna eta orain komunikabideekin aritzea tokatzen zait, baina lanari dagokionez oso gustora nago. Politikariek proposatu eta Parlamentuan bozkatzen den kargu bat izan arren, kargu tekniko bat da.

### **Gainera zuena, erakunde publiko bat izan arren independentea da...**

Bai erabat independentea. Dependentsia organikoa du baina ez-funtzionala, hau da, Parlamentuko organoa da, baina gure funtzionamendua oso independentea da. Eta horrela behar du izan, bestela sinesgarritasuna lortzea ezinezkoa da.

### **Etxekoek eta herritarrek zer moduz hartu dute berria?**

Beteluar bat hedabideetan ikustean oso pozik jarri direla esan didate herritarrek. Kar, kar, kar... Eta etxean ere ongi, pozik.

### **Zer moduzkoa izan da lehenengo hilabete hau lehendakari bezala?**

Oaindik auditorearen paperean sartuta nagoela uste dut. Lehendakari izendatu nindutenean bi lan nituen bukatzeko eta txip-a aldatu beharra daukat. Oain



beste kargu bat dut eta kargu honek beste betebeharrak batzuk ditu. Lankideek ere esaten didate: “Utzi lan horiek alde batera!”.

### **Zure kargu hartzean emakumezkoa eta euskalduna izatea nabarmendu dute. Horrek ere esanahi bat izanen du zuretzat ezta?**

Bai, bai. Aurretik auditorea izatea, emakumezkoa izatea eta euskalduna izatea baloratu dute nire lehendakartzarekin. Euskara geroz eta gehiago erabiltzen da administrazioan eta guk ere ganberan beti bi hizkuntzatan egiten dugu lan.

### **Nola dago osatuta ganbera? Eta zenbat lagun aritzen zarete bertan lanean?**

Guk taldea egiten dugu lan. Talde bakoitzean auditore bat dago lana zuzentzen edo gidatzen duna eta auditore bakoitzak lau zepabost teknikari ditu bere taldean. Bestalde aholkularitza juridikoan dabilzanak, idazkaritza orokorra, bi letratu, bi informatikari, administrariak, ordenantza bat eta komunikazio arduradun bat dago. Guztira 35 langile gara gutxi gorabehera.

### **Lan egiterako orduan zein izaten da jarraitzen duzuen prozedura?**

Teknikariak paperak bildu eta aztertze- ra joaten dira udaletxe edo erakunde publikoetako egoitzetara. Auditorea hasierako lana planifikatzeaz arduratzen da, teknikariek zein atal aztertu behar dituzten zehaztu eta antolatzen du. Bera arduratzen da teknikariek

programa informatikoen laguntzarekin egindako azterlana berrikusi eta ateratako gomendio edo ondorioekin txosten edo zirriborro bat idazteaz.

### **Eta gero zer egiten duzue txosten horrekin?**

Bertan bildutakoak hainbat fasetan eztabaidatzen ditugu teknikariek eta fiskalizatu dugun erakunde horrekin. Batzutan alegazioak bidaltzen dituzte ados ez daudelako guk jarritako zerbaitekin... Behin hori eginda, behin betiko txostena prestatzen dugu eta hedabideetan kaleratzen da.

### **Horrez gain Parlamentuan ere aurkezten duzue...**

Bai, Parlamentuko organo publiko bat gara eta txosten guztiak Parlamentura bidaltzen ditugu. Gainera oain talde politikoek txosten hori azaltzeko eskatzen digute eta lehendakaria txostena egin duen auditorearekin joan ohi da agerraldietara.

### **Ze erakunde mota aztertzen dituzue?**

Erakunde publikoak diren horiek, Gobernua bera, udalak, enpresa publikoak, Nafarroako Unibertsitate Publikoa... Urtero aurreikusitako lanekin programa bat egiten dugu eta Parlamentuan aurkezten dugu. Badira erakunde batzuk urtero fiskalizatzen ditugunak: Nafarroako Gobernu kontuak, 9.000 biztanletik gorako udalak... Nafarroako Unibertsitate Publikoa bi urtetik behin egiten dugu. Baina finkoak diren lan horiez gain Par-

## elkARRIZketa:

*“Gomendioak eman baino ez ditugu egiten gure txostenetan”*

lamentuak berak eta udalek eskaerak egiten dizkigute.

### **9.000tik beherako udalak gutxitan aztertzen dituzue orduan?**

Baten bat egiten dugu eskatzen digutenean. Aurten adibidez egin behar ditugu Izaba, Lerin...

### **Gureak bezalako udal txiki hauek zer moduz dabilta kudeaketa ekonomikoari dagokionez?**

Nahiko ongi. Inbertsioak asko murriztu dire krisialdian, hori asko nabaritu da, baita langileen gastuak ere. Batzuek zor handiagoa dute beste batzuek baino... Orain badirudi berriz inbertsioak indartzen hasi behar direla. Baina azken urte hauetan zergak eta diru sarrerak ere nabarmen jaitsi dira.

### **Uste duzu krisialdia ongi etorri dela ekonomikoki kudeaketan neurriak hartzeko?**

Bai. Batez ere Nafarroako Gobernuan ikusi dugu zer-nolako derrotxeak egin diren, adibidez, Los Arcoseko zirkuituarekin, Arena pabiloiarekin edo San Fermín museoarekin. Eta alde horretatik uste dut ongi etorri dela kudeaketa berrikusi eta diru publikoa beste modu batean erabiltzen hasteko.

### **Eta udal txiki hauei zuk ze gomendio emanen zenieke?**

Gomendio sinpleak izaten dira, ez pentsa! Kontu korrontean duten dirua pertsona bakar batek ez erabiltzea, gutxienez bi pertsonak izatea eskumena dirua ateratzeko... Artxiboa hobeki nola kudeatu, obra egiten dutenean kontratazioak legez nola egin... Halako gomendioak izaten dira.

### **Erakunde publiko bat fiskalizatzen deanean eta argi ikusten duzuenean egingako kudeaketa ez dela zuzena. Horrek ze bide jarraitzen du?**

Guk gomendioak baino ez ditugu ematen txostenetan. Batzuetan ikusten die



Joan den apirilaren 29an Nafarroako Parlamentuan hartu zuen kargua Olaetxeak.

halakoak eta guk kasu horien jarraipena egiten dugu.

### **Beraz, erakunde edo udal horien esku dago gomendioei kasu egin eta zuzentzea?**

Bai, guk ez dugu eskumenik isunik jartzeko. Guk gomendioak ematen ditugu besterik ez.

### **Esaterako Lekunberriko Udaleko kontuak fiskalizatu zenituzten 2010ean eta Udalak zuen zorra handia zela ondorioztatu zenuten txostenean...**

Bai. Halako kasuetan gastuak murrizteko edo diru sarrerak indartzeko plangintza bat egiteko gomendatzen diegu, baina azken erabakia beraiena da. Guk ezin dugu gehiegi sartu, lehentasunak berriak jarri behar dituzte.

### **Iruzur kasuak ateratzen al dira argitara?**

Oso zaila da ikustea, ez dira paperetan egoten, halakoak egiteko mekanismo oso sofistikatuak daude. Guk susmoak edo zantzuak ikusten ditugunean fiskalei jakinarazten diegu, guk geuk ezin dugulako ezer egin. Zaila da ikusten, hala ere, izan dira kasuak hirigintzako zenbait enpresatan, basogintzako beste batean...

### **Eta aurrera egin al dute kasu horiek?**

Ba, ez, egia esan ez.

### **Orduan hor hutsune legal bat badela uste duzu?**

Bai eta erakunde publikoetan ere badago barne kontrola eta barne kontrol hoi de bai indartu beharra da. Tresna edo mekanismo batzuk jarri behar dira martxan kasu horiek ez gertatzeko. Baina horiek erakundearen barruan egin

beharreko gauzak dira. Gure helburu printzipala ez da hori bilatzea. Ikusten badugu saiitzen gara, baina oso zaila da.

### **Udaletan bertan izanen dira iruzurren berri emanen dizkizuetenak...**

Bai. Batek gauza bat esaten dizu eta besteak kontrakoa, baina paperetan ez badago... Eta askotan gertatzen zaigu gauza bat kontatzen digutela eta guk paperean ikusitakoarekin ziurrenik hala izanen dela pentsatzen dugu, baina txostenean ezin dugu hori jarri ez dagoelako justifikaturik. Legea betetzen ez duela jarri ahal izateko paperekin justifikatu behar dugu. Guk iruzurra paperean ikusi behar dugu, ez badugu ikusten ezin dugu ezer egin.

### **Eta teknikariak udaletxeetara edo erakundeetara joaten direnean zer moduz hartzen dituzte?**

Hasieran mesfidantzaz eta beldurrez, baino geu ongi. Besteen lana aztertzen dugu eta beraientzat ez da oso atsegina, aholkuak ahalik eta modurik onenean ematen saiitzen gara. Azken batean ulertu behar dute kudeaketa hobetzeko gaudela.

### **Urtean urtekoa planifikatzen duzuela diozu. Aurten zertan zabilzate?**

Urtero egiten ditugun 9.000 biztanletik gorako udalak egiten gabiltza, Nafarroako kontu orokorrak, Unibertsitate Publikoa ere egingo dugu eta dagoeneko egiten ari gara Lerin, Izaba, Miguel Indurain Fundazioa, Miguel Servet Fundazioa. Fitero egiteko eskaera ere badugu. Eta egin ditugu ere Baztango Udala, Nafarroako Informatika Zerbitzua eta Nafarroako Laborategiak.



**Nor da nor?**  
**Nortzuk azaltzen dira argazkian?**  
**Non ateratakoa da?**  
**Noiz ateratako argazkia da?**

Erantzunak hurrengo alean kaleratuko ditugu!

Bidaliezazkiguzu zure argazkiak denon gozameneko mailope@labrit.net helbidera edo 638 65 23 39ra deitu eta kudeatuko dugu.

- 19 -



Hona hemen aurreko alean kaleratutako argazkian ateratzen den koadrila honetako kideen izen-abizenak (ezkerretik eskuinera eta goitik behera): Pedro Manuel Barberia, Anastasio Biana, Pedro Agirrezabala, Baltasar De Castro, Julian Arregi, Martin Balda, Joakin Erro, Pedro Arraiza, Korpus Hernandez, Juanito Aldaia, Ramon Astiz eta Maria Ixabel Zabaleta.

## Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.



Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

## ETXEZ ETXeko EGUR SALMENTA

URTE OSOAN ZEHAR

EGURRA  
EXPRES

☎ 635 90 91 95

✉ promanburillo@gmail.com

Erbiti, Basaburua

Gure egurraren kalitatea eta prezioak ikusten dituzunean kea aterako diezu

## Antsonea gazta Idiazabalen saritua izan da

Maiatzaren 1ean ospatu zen aurtengo Idiazabalgo Eguna. Bertan izan zen Uztegiako Antsonea gaztandegiko Goikoetxea-Agirrebarrena familia eta 2016ko Idiazabal Gazta Onenaren txapelketan hirugarren saria jaso zuten. Dagoeneko badituzte lanean jarraitzeko zenbait sari eta aitorten. 2015ean Uhart-Arakilen 4. saria irabazi zuten, 2014an Ibaizabalen Gazta Onenaren Txapelketako 5. saria eta 2011ko Uhart-Arakilgo Artzain Egunean 5. saria. Zorionak!



## Soto eta Irazurekin mahai bueltan

Maiatzaren 14an ospatu zen bertso afaria Azkarateko Balerdi elkartearen. Urteroko zita bihurtu da dagoeneko, eta jendea bertso gosez elkartu zen mahai bueltan. Jan-edan oparoaz gain, bertso gosea ederki ase zuten Julio Soto eta Jexux Mari Irazu bertsolariek. Errepaso ederra egin zieten afaldarrei, eta giro bikaina sortu zuten broma eta gaiztakeri artean.



## Energiaren bitartez klima aldaketari aurre egiteko plana

Parisen izandako COP21 ezagunaren ondoren, 195 herrialdeek 2010. urtean zegoen CO2 isurpenen %55 murrizteko konpromisoa hartu dute. Herrialde horien artean Europa ere badago, beraz, gu ere horren erantzule gara. Honen harira, Beteluko eskolako 2. DBH-ko ikasleek, Natur Zientzia ikasgaiaren, energiaren bitartez klima aldaketari aurre egiteko plana egin dute.

Lehenik eta behin, eskolako energiaren kontsumoa eta jatorria ezagutu zuten. Ondoren energia iturri mota bakoitza aztertu zituzten, euren abantaila eta desabantailak ezagutuz. Informazio horrekin proposamenak aurkeztu zituzten, bi arlo nagusi bereiziz: Energia iturri motak eta energia horren kudeaketa (kontsumoa murrizteko ohiturak, kudeaketa eta inbertsioa).

Behin plana eskutan Beteluko alkatea den Mikel Rekalderi aurkeztu zioten, izan ere, Udalaren eskutan dago eskolaren energiaren kudeaketa.



## Sator Zulo lokalaren 3. urteurrena ospatuko dute hilaren 11n

Hiru urte bete ditu dagoeneko Sator Zulo lokalak. Ekainaren 11ean ospatuko dute aurten urteurrena eta egun osoko egitaraua prestatu dute. Kuadrilen arteko herri-kirolak, bertso-bazkaria, pintxo poteoa...

ekainak 11  
**SATOR ZULO**  
3. urteurrena

11:00 Kuadrilen arteko herri kirolak Beteluko plazan  
14:00 Bertso bazkaria, Julio Soto eta Uxue Alberdi  
(22€, Beteluko tabernan eta surtidorean salgai)  
18:00 Mus/Ping pong/Dardo txapelketa  
19:30 Pintxo poteoa  
00:00 DJ Satorzulol



## Mailopeko herriak zeharkatuko dituen ibilbidea

Mailopeko herri guztiak elkartu eta herriz herriko bideak garbi eta ongi seinalizatzeko helburu duen egitasmo bat jarri berri dute martxan.

Idea ezberdinak bildu eta Mailopeko herriak indartzeko aurrerantzean zein pauso eman daitezkeen aztertu ondoren, Mailopeko herriak zeharkatuko dituen ibilbidea antolatzea da asmoa.

Ekainaren 11ean, arratsaldeko 16:00etan Gaintzako elkartearen gaia lantzeko batzarra izanen da.

Animatu eta parte hartu!

## Industria sektoreko formakuntza ikastaroak

Nafar Lansareak, Mendiialdea Garapen Agentziak eta Cerderna-Garalurrek Lekunberrin hainbat formakuntza ikastaro antolatu dituzte. Industria sektoreari lotutako balio anitzeko lau ikastaro dira eta ekainean eta uztailen burutuko dira. Langabetuek ikastaro osoan izen eman beharko dute eta langileek aldiz moduluak egin dezakete. Honako hauek izango dira moduluak: Orga asotzaileen erabilera, Plataforma jasotzaileen erabilera, Garabi Zubiaren erabilera eta Lan Arriskuen Prebentzioa. Dagoeneko izen emateko epea zabalik dago eta ekainaren 15ean izanen da azken eguna. Horretarako jarri harremanetan [jcejuelv@navarra.es](mailto:jcejuelv@navarra.es) e-postaren bitartez. Argitu zure lantzak [fmartinz@navarra.es](mailto:fmartinz@navarra.es) helbidean.

 **ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldi  
eskaintza bereziak

*Iñigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**  
 **696 658 288**  
**LEKUNBERRI**

 **SUAKONTROL**  
**LEKUNBERRI**  
*Suaren kontrako plakak*  
Oztegin kalea 25,  
Lekunberri  
948 60 48 96 (Tel.)  
948 60 45 16 (Faxa)  
[suakontrol@grena.es](mailto:suakontrol@grena.es)  
[www.grena.es](http://www.grena.es)

**IORTIA** CLINICA DENTAL HORTZ-ESTETIKA  
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591  
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69  
**ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·**  
**ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI**



## *Itxaropen argiak*

Kriseiluen argiaz argitu zuten zerua maiatzaren 13ko gauean Azkaratera eta Lekunberriko plazara hurbildu ziren herritarrek. Antolatzaileek zituzten aurreikuspenak bete egin ziren. Azkaraten kriseilu guztiak saldu zituzten. Berandu iritsi ziren batzuk esku hutsik ere gelditu ziren baina ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten. Paperezko kriseiluak piztu eta puztu arte pazientziarekin itxoin ondoren aineratu ziren lehenengoak. Pixkanaka zerua koloretako argiz betetzen joan zen eta ikuskizuna bere onenean zegoenean Mailoetako mendilerroetako tontorrek argitu ziren. Koadrila eder baten parte hartzeari esker, Artxuetatik Balerdirainoko tontor nagusiak argiztatu zituzten. Horra hor gauak utzitako zenbait irudi.





Zuhaitzean trabaturik gelditu ziren bat edo beste.



Pazientziarekin hartuta aireratu ziren lehen krisailuak.



Azkaraten heldu zein gaztetxoek parte hartu zuten



# KIROLeIkarrizketa

## Afizionatuetatik profesionaletara

21 urterekin debutatu berri du Xabier Azpiroz uitziarrak erremontista profesional bezala. Orain arte Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioko Errendimendu Altuko Eskolan aritu da entrenatzen eta maiatzaren 7an Hernaniko Galarreta pilotalekuan estreinatu zen profesionaletan Oriamendi 2010 enpresaren eskutik.



### Nolatan hasi zinen erremontean Xabier?

Txikitan pilotan ibiltzen nintzen, gero ja futbolen ta duela hiru urte utzi nuen futbola ta erremonten hasi nintzen. Ibai Martirenak animatu nindun probatze-  
ra, kaso in, gustatu ta aurrea.

### Eta non hasi zinen?

Atarrabin, Atarrabiko eskola baten hasi nintzen eta gero belaxe Euskal Jaien, Uharteko frontoi luzean.

### Atarrabian zenbat lagun ibiltzen zineten?

Ez dakit, zazpion bat baginen lenao eta Euskalen beatzki eo hamar bat.

### Eta geroztik han ibili zara entrenatzen?

Bai. Aurten Labrit pilotalekuan txapelketa izan genuen eta motzean ibiltzen hasi gara.

### Ze txapelketa izan zen hura?

Iruñeko Alde Zaharreko Torneoa izan

zen, bigarren mailakoa. Martxoan hasi eta apirilaren 22an izan zen finala. Euskal Jai Berri eskolako sei jokalarik eta Ibai Martirena eta Imanol Ansa ere parte hartu zuten. Bigarren mailako finala Ansa II eta biok irabazi genien 35-20 Barricart eta Otanori. Gero bi aste izan genituen entrenatzeko eta maiatzaren 7an debuta.

### Eta espero al zenuen debutatzea?

Debutatu behar giñula esaten zuten,

**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak



Etorri eta on egin!

Erreserbak:  
948513026  
618557889

**BETELU PNEUMATIKOAK**

TAILER MUGIKORRA

NEUMATIKO ALDAKETA ZULATZEEN KONPONKETA

Vicente Iriarte  
**T. 646 474 166**  
www.neumaticosbetelu.es



**LARRAUN** GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ  
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

**Gruas y Talleres LARRAUN s.l.**

Lekunberriko industriagunea,  
21. nabea  
31870 Lekunberri  
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefona: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
gtlarrapun@gmail.com







baino ez ziguten ezer ziurrik esaten. Debuta baino pare bat aste lehenago abisatu ziguten eta ilusioakin.

#### **Debutaren eguna zer moduz joan zen?**

Urduri ibili nintzen. Aurreko egunean hamabietan joan nintzen etxea ta ordu-bik arte ezin loik in. Baino gero familikin bazkaldu eta pasatu ziren urduritasu-nak. Kantxan ongi.

#### **Lagunak ere joan zitzaizkizun animatza- tzera...**

Bai, bai launek eta familiakoak. Egun hartan familiakin bazkaldu nuen eta partiduaren ondoren koadrilekoakin sagardotegin izan nintzen ospatzen.

#### **Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioko sei lagunekin batera debutatu zenuen...**

Bai. Xabi Erburu (Burlata), Ibai Barricart (Aoitiz), Mikel Otano (Aoitiz), Aritz Garcés (Iruña), Beñat Rodríguez (Iruña) eta ni izan ginen Galarretan debutatzen.

#### **Hor ere irabazle...**

Bai oraingoz jokaturako hiru partiduta-tik hiru irabazi ditut.

#### **Eta debutatu izanarekin zer aldatzen da hemendik aurrera?**

Ba azkenean kontratu bat duzu bete behar duzuna eta horrek ere eusten dizu pixka bat. Orain arte astean behin edo bitan entrenatzen ginen eta

## “Hemendik aurrera gehiago entrenatu beharko dugu”

hemendik aurrera gehiago entrenatu beharko dugu.

#### **Baina Euskalen entrenatzen jarraituko duzue?**

Bai, bai. Azkenen jendea unibertsitatean dago edo lanean eta ezin zaa ibili bi orduz joan-etorrian entrenatzeko. Saiatzen gara batzutan Galarretara joaten baino...

#### **Frontoitik kanpo ere entrenatzen al zarete?**

Aurten hasi ga fisikoarekin. Entrenatzaile fisiko bat jarri digute eta hasi ga frontoitik kanpo korrika pixkoat egiten eta gimnasia joaten bizkortasuna eta azkartasuna lantzeko.

#### **Noiz izanen duzue lehenengo txapelketa?**

Guk debutatu baino astebete lehenago Sagardoaren Txapelketa bukatu zen eta orain partidu solteak jokatzeko gabilta. Baina maiatzaren amaieran hasiko ga bigarren mailako promozio txapelketa-ekin. Gogoakin hasteko ja.

#### **Bi modalitate daudela diozu, motzean eta luzean...**

Bai, frontoi motza adibidez Iruñeko Labrit pilotalekukoa da, 36 metrokoa. Galarretakoa luzea da 54 metrokoa. Txapelketa batzuk frontoi luzean egiten dira eta beste batzuk motzean. Motzean askotan herriz herri jokatzeko dira partiduak.

#### **Eta zein modalitate egiten zaizu zaila- goa?**

Gu aurten entrenatu gaa motzen eta guretzat zaila izan zen Galarretan jartzea, baino esaten due behin jarrita errexagoa dela luzean. Errexagoa omen da motzetik luzera pasatzea, luzetik motzera baino. Ikusiko dugu...

#### **Erremontean teknika landu beharko duzue...**

Bai, teknika izaten da kolpea baino gehiago. Azkenen batzuk indar handia dute, baino frontoian ibiltzen jakitea da kontua.

#### **Ikasten eta lanean ere ari zara aldi be- rean... Nola iristen zara denetara?**

Bai, Lehen Hezkuntzako ikasketak aurten amaitzen ditut eta umeen aisialdian lanean nabil. Oraingoz ez dut arazorik euki. Gainera, Fundazioan beti esaten digute lana ta ikasketak lehenesteko eta gauza horiek partiduak jartzerako orduan ere kontuan hartzen dituzte.

## Hasi da Udaberriko Pilota Txapelketa

Maiatzeko azken asteburuan jokatu zituzten Gorritin Larraun Pilota Elkartek antolatutako Udaberriko Txapelketako lehenengo jardunaldiak. Binakako txapelketa izanen da eta denak denen aurka arituko dira. Hurrengo partiduak ekainaren 5ean, arratsaldean, jokatuko dira Baraibarko frontoian eta ekainaren 12an, Mugiron. Semifinala berriz ekainaren 19an Aldatzen izanen da eta finala urteroko moduan ekainaren 24an Lekunberriko frontoian.

## Izaro Otegi 3. Nafarroako Kirol Jokoetan

500 metroko proban hirugarren egin du Izaro Otegi Nafarroako Kirol Jokoetan. Idoia Lizarragak ere parte hartu zuen eta seigarren gelditu zen 3.000 metrotan. Bestalde, Idoiak seigarren eta laugarren postuetan sailkatzea ere lortu du 1.000 metro eta 4x80 metroko erreleboen probetan. Hodei Otegi ere bere ibilbidean aurrera egiten ari da. Maiatzeko azken asteburuan egindako Nafarroako Kirol Jokoetako probetan, hirugarren postua irabazi zuen luzera proban, hirugarren pisu jaurtiketan eta bigarren 100 metrotan.



## Etxeko bi pilotari txapeldun Labriten

2015eko maiatzean sortu zen Elkarpelota proiektua hainbat pilotari profesionalen eskutik eta pilotariak trebatzeko zentroa ireki zuten. Elkarpelotak antolatuta, joan den maiatzaren 22an, Eskuz banakako lehenengo txapelketako finala jokatu zuten Iruñeko Labrit pilotalekuan. Zazpi partidu jokatu ziren guztira eta Araxes Pilota Elkarteko bi pilotari izan ziren finalean. Prebenjaminen kategorian jokatu zuen Igor Nazabal Otamendik. 16-9 irabazi zion Apezetxeari. Eta Julen Sotil Mikeok ere Benjaminen kategorian 16-10 irabazi zion Armenzarizi. Zorionak bikote!



NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com

**NEKAZARI, S.L.**  
Kubota  
STIHL  
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazaris@hotmail.com

**AMAIRU BAR**

ETXKO PIZZAK,  
KOPA BERGIZIAK

948504352

**Kantina Rock**

**KANTINA**

bokatak, platerak eta...musika.....

948  
60  
48  
21

**TAXILON**

661 202 249  
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz

Lontxo  
Otamendi  
Artola



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak  
Mailope aldizkariaren bitartez!

# KuxKuxean

**Goreti Estanga**

(Ekainak 16, 3 urte)

**Zuriñe Estanga**

(Ekainak 30, 6 urte)

**ZORIONAK BIKOTE!!** Segi hain alaiak ta txintxoak izaten eta disfrutatu zuen eguna. Muxu pottolo pottoloa aitaxo eta amatxoren partez. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



**Jone Zabaleta Olasagarre**

Ekainak 8, 13 urte.

Zorionak Lekunberriko Jone Zabaleta Olasagarreri, zure hamahirugarren urte betetzean. Ekainaren 8a, izan dedilla egun zoragarrie. Muxu asko etxeko denak maitasunez.



**Luana Becares Bachilieri**

Ekainak 23, 6 urte.

Zorionak Luana!!!

Zorionak etxeko erreginari...

Oso handia egiten ari zara!!

Egun zoriontsua pasa dezazula opa dizugu. Ama, aita eta Niko-

lasen partez.



**Eneko Oreja Altuna**

Ekainaren 23an, 5 urte.

Zorionak pottoko!! Ze azkar ai zean haunditzen... Segi holaxe, irripar politt horrekin.

Muxu haundi bat etxeko guztin partez:

Aitaxo, Amatxo, Egoitz eta Itxaso.



**Irati Garmendia Huarte**

Uztailaren 2an 11 urte.

Zorionak Gastesikoen partez!



**Olaia Huarte Zubeldia**

Ekainaren 11an 10 urte.

Zorionak Gastesikoen partez!



**Maddi Huarte Zubeldia**

Ekainaren 9an 12 urte.

Zorionak Gastesikoen partez!

**Lorea Huarte Zubeldia**

Ekainaren 9an 12 urte.

Zorionak Gastesikoen partez!



**Marijose Huarte Martija**

Ekainaren 24an urteak betetzen ditu.

Zorionak Gastesikoen partez!



**Unai Goñi eta Jon Ordorika**

11 urte beteko dituzte.

Zorionak Unai eta Jon!

Ongi ongi pasa zuen eguna eta aupa Barça

eta aupa Athletic.

Muxu haundi bat.



**Zorionak Naroa!**

Ekainaren 22an 12 urte

betetzen dituzu. Muxu pottolo bat etxeko partez.

Aita, ama, ibai eta lander

**Kaiet Eskamendi Goikoetxea**

Ekainak 16, 2 urte.

Zorionak gure etxeko txikiari!!!

Oso ongi pasa zure egunean eta

muxu pottolo bat Izarne, Egoi,

aitatxo eta amatxon partez.


**ZUZENKETA:**

136. alean Onofre eta Amaia Iriarteren zorion agurrean familiaz gain Naroa eta Maren izenak ere gehitu genituen deskuidoan. Zorion agurra Elene, Aner, Danel eta Arribeko familiaren partez zen.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

## “Artzain txaboletan ez da inor egongo hemendik aurrera”

*Etxean ardirik ezagutu ez zuen arren, asko gustatzen zitzaizkion animaliak. Pixkanaka artzain lanetan hasi zen, lehendabizi morroi, urte askoan batekin eta bestearekin: beteluar batekin eta baita osabarekin ere. Bizi erdia Aralarko txabolan egiten du Txomin Otermin Pellejero eta beste erdia, berriz, Intzan. Behiak, txerriak eta ahuntz batzuk zituzten etxean eta gurasoei txikitatik laguntzen zien. Urteko sasoirik gogorrena pasa da artzaintzat, behin negua atzean utzita. Orain, gazta jatea tokatzen da, “lurra baita gure ama”.*



### **Jaiotzez artzaina ez, baina mende erdi baino gehiago eman duzu lan honetan.**

35 urte ingururekin Kaliforniara ein nun buelta, beste 3-4 lagunekin batea eta bost urte ein nittun bertan. Ez zitzen hango klima biziki gustatzen, beroegia zen. Ez zen bizimodu txarra, baina bero ikaragarri hori ez nun jasaten. Bost urte ein ondoren bueltatu nintzen. Hangoa ikusi nun ta konforme! Handik etorri eta fabriketan lanik ez zeon ta bi urte ein nittun artzain lgeidon. Azkenen ardi batzuk eosi nittun 1980. urtean, eta pixkanaka-pixkanaka ne kabuz hasi nintzen.

### **Txabola duzu Aralarren...**

Bai, Gaintzeko bati erosi nion, bere ardiakin batea. 1984. urtean berritu nun.

### **50 urte artzain... Badira batzuk!**

Nei libre antxan ibiltzea gustatzen zitzaien. Beti ez da libre izaten ardiekin baina bakizu, uda partean beti mendian oso gustoa ibiltzen die. Nei ere asko gustatzen zait mendia. Herrian neguan leku gutxi nunez hainbeste ardi dintzako, 15 urtez negun Oiartzunea joan izan naiz, azaroa alde, Gurutze auzora. Hala ibili nintzen ardi erosi nittunetik 1995. urtera arte. Udan, berriz, Aralarren eoten nintzen. Han, negu garaian, jendeak esnea mamia eiteko erosten zun, batez ere aste



bukaeratan. Gazta ere eiten nun. Ardi batzuk kendu nittun geo, ta gaur egun 120 bat buru dittut. Jubilatatu batenzako nahikoa!

### Zein da artzain baten bizimodua edo egunerokoa?

Negun ardik ukuiluan sartzen dittut, umetzeko garaien baserrin. Uda ahal den gehiena luzatuz, azarora alde herrira jaisten dittut. Arkumeak kendu eitten dittut (Tolosako hiltegiara eaman) ta gazta eitten aitzen naiz geo. Urtrilean ardiak jetzi ta maiatza bukaera arte ai-tzen gea. 5-6 gazta ateatzen dittut egunean. Oain jendeak gazta naturala nahi izaten du, gatzari naturalarekin, prozesu naturalarekin eindakoak.

### Eta mamiak?

Mamiakin jendea beste aldea ohituta dao, gaztarekin alderantziz pasatzen da. Intzan Pazkotarako bakarren batek eskatzen dit, baino gañeakoan ez da ohikoa esnea eta mamia eskatzea.

### Artileak ba al du irtenbiderik?

Azken urte hotan hasi die eamaten berriz. Udaberrin ardik mozten dittugu eta eamaten due. Garai baten artilea arropa eitteko erabiltzen zen, "lana pura" esaten zitziön. Oain ebai pentsatzet horretako erabiliko dela...

### Aralarko edozein txokotan ibiltzen dira ardiak?

Harrituko ziñeke ne ardiek nola eamaten duen martxa. Beaien parajetik ez die beste iñoa juten. Harritu eitten naiz ni neu e, uda parten iotzen dittudanen Intzetik txabolaino bakar-bakarrik nola etorriko liekeen ikusita, been kasa.



### Aurrerapenek zuengan ere eragina izan dute. Baina garai bateko artzainak moldatzen ziren euren asmakizunekin, ala?

Bai, betelarra eitten giñun. Mailoatoko lursail batzuta eamaten giñun (oain galduta daude) eta mugarritu eitten giñun. Segarekin moztu, belarra ondu, sortak ein, eta ixkiñan kablea zeolaik, goitik behera eamaten giñun, herriaiño. Oaindik badie kable hok, Intzeko Mailoatan. Intzen famili handik baitzien gaztea nintzenen, ta seme-alaba guztik baserrin eiten zuten lana, 30 baserri izango zien... Geo jendea fabriketan lan eitten hasi zen, Leitzan eo Frantzin, basoan.

### Artzain izateko bakardadea gustuko izan behar al da?

Ni aspaldi nao jubilatuta, baino bizimodu hau gustatzen zait, asko gaiñea.

Baino nei, bakardadea baino, lagunartea gehiago gustatzen zait. Lehenago asko elkartzen ginen mendian. Bi aterpe daude, bat hemendik gertu, gainkaldetan. Baino bi aterpe hauek ganaduzaleentzako gelditu behar ziela esan zuten halako baten ta orduz geoztik ez da jende gehiegik ikusten. Beloki aldean bada beste artzain bat baino urruti xamar dao. Tarteka elkartzen gea enkarguk eitteko, baino... Ez da lehenagoko giroa, jendea oso presaka bizi da. Noiznahi etorri, aziendak ikusi, zitzu batean dena eta...

### Zure ondorengo belaunaldiko artzainak zuek bezala bizi dira?

Ez, hoik mendin oso gutxi eoten die. Bisitan etortzen die, ardin ingurua martxan jarri eta listo. Nik oain oso artzain gutxiarekin hitz eitten dut. Neronek joan behar izaten dut beste artzaiengana

*Lagundu Mailope!*  
Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?  
mailope@labrit.net

**ekin**  
rotulación

**GARAZ**  
Zure behar eta ordutegira moldatuko gara  
ETORRI ETA INFORMIA ZAITEZU!  
Mate erdi eta goi zikloetarako prestaketa  
Fisika Inglesa  
lengua kimika  
euskera historia  
marraketa teknikoak  
948 504 450  
648253522  
unibertsitate mailako ikasgaiak...

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·  
**PATXI GALARZA**  
Astelehenetik larunbatara  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KOMPURTZEN  
634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.**  
HIRUROK S. VETERINARIOS  
Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri



Geroz eta gutxiago dira urte erdia Aralarko txaboletan pasatzen duten artzainak. Arg: Carlos Camara.

tertuli pixka bat eitteko, bestela jendeak denborarik ez dauke kontu kontari eoteko. Ni bezela ibiltzen den Intzeko beste bat eta Gaintzeko bat badao. Pena da, lehenao artzain asko elkartzen ginen, noiznahi bazkari bat eiten giñun... Ondo pasatzen giñun. Gaintzeko Inazio Otamendi laun haundia (ahuntzai zaharran sendikoa), duela 3 urte joan zen hura ere eta harekin tertuli polittack izaten nittun.

#### **Bizimodu honen aldaketa noiz sumatu zenuen?**

Duela zazpi bat urte sumatu nun aldaketa. Hemen medikamentuk jarri zientetik, mendiak itxi bezala ein zittuzten ere. Aziendak libre bota behar ziela esan ta artzain behar handirik ez zeola esan zuen. Ganaduzaleek ere hala diote, lehenoz bezela ez dela oain artzain ibili beharrik.

#### **Artzain izatea gogorra da...**

Bai. Negua oso gorra da, lan asko ein beharra da. Urri bukaeran jeisten gea herrira. Gauen jeiki, zaindu, ukuiluan eon, arkumek jaijo arte ongi zaindu, jetzi, jana eman, kanpoan ibili haize pixkeat hartzeko, gazta ein... Badao lana. Eta udan ere beti daude gauzak zaindu beharrik, askotan artaldekin nahastu eitten die... Artzainekin ongi

moldatuz geo ez dao arazoik. Neke handirik ez dao udan. Aspertu ez naiz aspertu inoiz; pentsatu bai, asko, baina beti oneako. Jendeak esaten dit, "dauzkaan urteekin mendian bakardadean ez daukek ibili beharrik!". Baina nik ez diot inoi kalterik eitten.

#### **Ardiaren etsai nagusia zein ote da?**

Putrea igual, udazkenean behintzat bai. Hor eoten die, ardiak erasotzeko zai. Behin artzain bat ardiaren ondoan zeola, ikusi zun putreak nola jaisten ai zien, ta ardi gazte bat hankaz gora buelta ezin eman eta putreek, bizirik zeola, garbitu ein zuten. Hoiek gogosegurik dabilta, eta gehiegi daude. Noiznahi 100 putre elkartzen die ta ez die ardiakin ikeatzen. Badakie ez diela ezer eitten! Lehengo urtean ardiekin neola, zerbait jan ondoren berriz ikustea joan nintzen ta ardi batzuk odolez, zikinak... ni harriritu ez nekila zer gertatu ote zen. Aurxeago ikusi nun sekuleko putre pila: ardi pilatu nittun ordun ta bat bota zuen han lurrera ta hor jan zuen, bizik. Beste 3-4 atzekaldeak hozkatu, odolez-eta, sendaketa ein ta aurrea atea zien. Azkaten lehengo urten e eraso zuten artalde bat. Putreak askotan uxatu behar izan dittut. Azken urtetan asko gaiztotu die hoik.

*“Putreek lehengo urten Askaaten e eraso zuten artalde bat”*

#### **Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Hau joan da. Txabolatan ez da inor eongo hemendik aurrera. Gaur egungo artzaina artzaina da, noski. Hemen badie batzuk, Pellejero, Goikoetxea beste bat, hain arten Arantzazuko artzain eskolan eondakoak badie. Horrek ez du esan nahi inor artzain izateko animatuko ez dutenik, e! Baina horretako kooperatibaren bat o sortu beharko litzeke, 3-4 baserri elkartuta. Araitzen terreno asko dao, garai baten Araitz ardi tokie zen. Batzuk 1.500 ardi zittuen, pentsa!

#### **Entzun dizut mendian, tertulian, lurra zaindu beharra dugula...**

Lurre inportantea da, pertsona guztintzako, jatekoa lurretik dator, eta itsasotik. Benitok kantatzen zuen “Oi gure lurra”. Ta oain bakizu ze martxa daon, adelanto hokin, ez dakit noiaño ailtuko den.

## ekaina

**4** | *Euskal Herria Mendi Erronka.*

**4** | *"Eman bide euskarari" manifestazioa Iruñean, 17:30etan Golemetatik.*

**11** | *Mailopeko herriak zeharkatuko dituen ibilbidea antolatzeko bilera Gaintzako elkartearen 16:00etan.*

**17** | *Araitz-Betelun ekimenak antolatzeko kultura edo euskara taldea sortzeko batzarra egingen da 19:00 Beteluko Indianoetxean.*

**23** | *San Juan bezpera.*

agenda

## merkatu txikia

### SALGAI

- VPO pisua salgai Atallun. Bizitzera sartzeko prest. 90 m2ko bizitza, garajea eta trasteroa. 115.000€. 646179746 (Miren).

Aurtengo intxaurrak salgai! 636856801 (Itziar)

### ALOKAIRUAN

- Pisua alokatzen da Bete-lun, bizitzera sartzeko prest. 80m2-ko pisua altzariz hornitua. 690006283 (Mila).

Bajera bat alokatzen da Betelun. 690006283 (Mila)

### LAN BILA

- Lekunberrin emakume bat prest edozein lanetan aritzeko: etxeko lanak, pertsonen zainketa, etxebizitzaren garbiketa etab. Emilia Dimitrova: 948 60 48 93 / 679 053 368.

Lekunberriko neska gaztea ekainean eta uztailean zehar haurren zainketa lan egiteko prest! Harremanetarako: 608 206 338

### ADI!

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era.

## INTZAKO 3. KALEKO ANTZERKI FESTIBALA

### Ekainak 17, Ostirala.

20:00etan: Antzerki-dantza. "Berriz ere telonerak" Sorabileko antzerki taldea, Intza.  
22:00etan: "Loreak" filma, kalean eta pertsonaiekin elkarriketa.

### Ekainak 18, Larunbata.

17:30etan, Ipuin kontalaria "Untzi txiki txuria" eta "Relatos del viejo Antonio". Ana Lopez, Donostia.  
18:00etan, TXOKOLATADA.  
19:00etan, Antzerki clown. "Pituxa clowntu kontari". Bazen behin clown taldea, Lizartza.  
20:00etan, Rap Kontzertua. "La chula Potra". La Rotxa, Iruñea.  
22:00etan, Antzerki clown. "Así es(tá) la Vida". Iván Ortigosa, Esprontzeta.  
ARRATSALDEAN BOKATAK PLAZAN!!!!

### Ekainak 19, Igandea.

12:00etan, Zirkoa: Malabareak, magia, clown eta globo-lexia. Zirko-kolore, Iruñea.  
14:00 etan BAZKARIA. 10 € helduak eta umeak muxutruk. Etorri behar baduzue abixatu.

## LARRAUNGO EGUNA 2016

### Ekainaren 10ean. Lekunberrin.

19:00etan: Larraungo Agendaren aurkezpena. Larraun bizi. Lekunberriko udal-aretoan.

### Ekainaren 18an. Allin.

17:00etan: Tirikitrauki dantza taldearen emanaldia  
18:00etan: Umeentzako merienda eta jolas tradizionalak KULKI  
19:30ean: Herrien arteko Herri Kirolak  
20:00etan: Barrikotea Juanluzenea sagardotegiarekin eta "Plaza-dantza" Mikel Lasarte, Ortzadar dantza taldearen partaidearen eskutik  
23:30ean: Gaupasa Larraungo DJekin

### Ekainaren 19an. Gorritin.

Egun guztian zehar "EUSKARAREN ARNASGUNEEN" erakusketa (UEMA), Kontzeju etxean  
09:00etan: Mendi irteera Ttutturrek antolatuta  
10:00etatik aurrera Txistulariak hainbat herritan  
11:00etan: Pilotariak  
12:00etan: Aralar Musika Eskolako kontzertua elizan  
13:00etan: Segapustua  
14:30etan: Herri bazkaria bertsoariekin  
16:00etan: Oskar Estanga eta Ainara De Carlos  
16:00etatik aurrera puzgarriak  
16:30ean: Umeentzako tailerrak



# BETELUKO JAI

## Uztailak 2, larunbata. Zoroen eguna

13.00 Paella txapelketa  
14.00 Paellen dastaketa eta bazkaria  
16.45 Euskal Herriko Goitibeherak  
19.30. Sagardo eta pintxo dastaketa  
20.00 Zesuma taldearen musika emanaldia 21.45 Zezen suzkoa  
00.00 Zesuma taldearekin musika emanaldia Ondoren Oian Vega goizalderarte

## Uztailak 3, igandea. Pentsionisten eguna

13.00 Umeen Pilota Finalak  
17.30 Mus , partxis eta dardo txapelketa Arrats guztian zehar umeentzako puzgarriak 18.00 Tortilla Txapelketa  
18.45 Premio banaketa  
Ondoren Mariatxiak  
22.00 Jaiei bukaera emateko traka

# MUGIROKO PESTAKO

## Ekainak 28, asteartea. Herritarren eguna

19.00 TXUPINAZOA  
19.30 Frontenis Txapelketako Finala  
20.30 Herri Poteoa  
21.30 Herri afari autogestionatua  
Ondoren, gauerako giroa berotzeko KARAOKEA!  
00.30tan EGAN taldearen amaiera birako kontzertua!

## Ekainak 29, asteazkena. Peio Deuna eguna

7.00 Auroroak  
8.00 Dianak  
12.30 Meza nagusia  
13.15 Beteluar berriei ongi etorria 13.30 Pilota goxua txapelketako finala 17.30 Aitzur eta zartari tiraketa  
19.00 Herri kirol desafioa:  
Nafarroako txapeldun ordeak, Beteluarren aurka Bitartean gazta zaharra banatuko da  
20.00 Izen gabeak musika taldearen emanaldia

## Ekainak 30, osteguna. Txikitxoien eguna

11.30 Ume jolasak  
17.00 Umeen pilota final aurrekoak  
18.00 Afizionatuen pilota partidua buruz buru Salaberria vs Bakaikua 19.00 Umeen joku bereziak musikaz alaiturik  
Ondoren txokolatada  
21.30 Kuadrilla arteko afaria, kaudrilla bakoitza bere bereizgarriekin! Afal-ondoren kaudrilla arteko Prezio Justo lehiaketa  
00.30 DJ Txoko-rekin gaupasa itzela ondoren!

## Uztailak 1, ostirala. Gazteen eguna

10.00 Frontoian areto futboleko partida amistosoa  
10.30 Hiru aldetarako areto futbol txapelketa  
17.00 Puskabiltza herri guztian zehar Elektrotxufla Elektrotxarangarekin batera 19.30 Xingola Mingola lehiaketa puskabiltzako partaideekin  
20.45 Musika emanaldia GABEZIN-ekin  
21.45 Zezen suzkoa  
00.30 GABEZIN-ekin musika emanaldia  
Ondoren DJ Dantzaleku goizalderarte

## Ekainak 24, ostirala

21:00 Txupinazoa ostatutik  
22:00 AFARI HERRIKOIA ostatuan

## Ekainak 25, larunbata

12:00 ERRONDA  
20:30 BARRIKOTEA herriko frontoian  
23:00 "Disco Pesta" ostatuan

## Ekainak 26, igandea

12:00 ERRONDA  
17:00 PILOTA PARTIDUAK

## Ekainak 29, asteazkena

11:00 MEZA eta Hamaiketakoia Herriko Ostatuan

